

TITULO/TITLE: **Bost joku zerutiar** Ref: CM.2.0009 (SA)
Compositor/Composer: David Azurza
Texto/Text: Joxemari Iturralde
Idioma/Language: Euskera/Basque

1. IZAR DANTZA

Zerutik gora jauzika.
Zerutik behera alderrai.
Jai! joi! jei! jai! joi! jei! Denak doaz alai.
Jai! joi! jei! jai! joi! jei! Denok gatoz blai.

Izar dantza
Izarrekin dantza ilargiarekin lo.
Zerutik gora, zerutik behera.
Goitik behera, behetik gora, goitik behera berriro.
Behetik gora, goitik behera, behetik gora berriro.
Goitik behera izar dantza.
ilargiarekin lo.

2. LAINOAK

Lainoak daude
Aioaaue
Laino pottolo ta laino mokolo bultzaka.
Zer gertatuko da?
Lainoak daude
Aioaaue
Laino pisutsu ta laino flakotxu burlaka.
Zer suertatuko da?
Lainoak geldoak mantsoak motelak
Zer etorriko da?
Agian euria fin eta bizia.
Agian euria fin eta bustia.
Lainoak daude.
Aioaaue

3, EGUZKIA SARTZEN DENEKO LO KANTA

Eki loa, loa, loa
Eki loa, loa to.

Lo kantatxo xume xumea
Hitz goxo malguz osotu eki loa.
Amonak linazko seaskan
kuturtzen due eki loa
Poliki ilunarekin bateratzeko
Eguzkia sartuz dihoa.
Ilargiak jakinen al du babesten
Gureumetxoaren loa.
Eki loa, loa, loa,
Eki loa, loa to.

4. GAU BELTZA

Gau beltza, gau astuna, ixiltasuna.
Gauak pausuak taupadak gaua dago
Ilun, ilun ta isil
Dena dago urrun eta geldu.
Gau beltza gau astuna, ixil tasuna.

5. HAIZEAK FU!

Haizea dabil, dabil haizea.
Badator haizea zaldi gainean.
Haizeak fu!
Haizeak su!
Haizeak gu eramango gaitu.

Haizea dabil, dabil haizea.
Badator haizea gure gainean.
Trumoiak tru!
Tximistak txu!
Haizeak garrasi egiten digu.

Haizea doa, badoa ahaizea.
Haizea badoa ziztu batean.
Haizeak fu!
Haizeak su!
Haizeak adio egiten digu.
Sh!